

Otsaila
Febrero
2018

BIM

Antsoain Ansoáin

ANTSOAINGO AURREKONTU PARTE- HARTZAILEA 2018rako

Herritarrek beren proposamenak aurkezteko aukera izanen dute martxoan, Antsoaingo Udalak 2018ko aurrekontu parte-hartzailerako abian jarri duen prozesuan sartzeko.

Zer da aurrekontu parte-hartzailea?

Herritarrek udalerriaren kudeaketa publikoan gehiago parte hartzeko ekimena da, eta zenbait arlotan, erabakiak herritarren eta Udalaren artean hartzeko ekimena ere bai. Zehazki, aurrekontuetako diru-sail bat finkatzen da, eta prozesu baten bidez, herritarrek zehazten dute edo zehazten laguntzen dute diru hori zertarako erabili.

Parte hartu al dezaket nik?

Antsoainen erroldaturiko 16 urtetik gorako jende guztiak parte har dezake, eta Elkarleen Udal Erregistroan izena emandako herritar entitate guztiek ere bai.

Nola?

Zeure proposamenak eginez eta aurkeztu diren proposamenak hautatzeko prozesuan parte hartuz.

Zer proposamen egin ditzaket?

Obretarako proposamenak (berriak edo mantentze lanak) eta inbertitzeko edo gauzak erosteko proposamenak egin ditzakezu.

Nola, non eta noiz egin ditzaket proposamenak?

Proposamenak aurkezteko epea martxoaren 1ean hasi eta 28an itxiko da, 8:30etik 14:00etara aurrez aurre udal bulegoetan edota Udalaren erregistro elektronikoen bidez.

Non aurkituko dut argibiderik?

Deialdiaren oinarriak eta agiri guztiak Udal bulegoetan eta webgunean dituzu eskura (www.ansoain.es). Edozein zalantza argitzeko, deitu 948 13 34 10 zenbakira edo idatzi participacion@ansoain.es helbidera.

Anima zaitez eta hartazu parte!



PRESUPUESTO PARTICIPATIVO DE ANSOÁIN PARA EL 2018

Durante el mes de marzo se podrán presentar las propuestas ciudadanas para su inclusión en el proceso de presupuesto participativo del Ayuntamiento de Ansoáin para el año 2018.

¿Qué es el presupuesto participativo?

Es una iniciativa que tiene como objetivo incentivar la partici-

pación de la ciudadanía en la gestión pública del municipio e implementar ámbitos de codecisión. Consiste en determinar una partida presupuestaria y desarrollar un proceso por el cual la ciudadanía define o contribuye a definir el destino de este dinero.

¿Puedo participar?

Todas las personas empadronadas en Ansoáin, mayores de 16 años, y las asociaciones o entidades ciudadanas inscritas en el Registro Municipal de Asociaciones lo pueden hacer.

¿Cómo?

Puedes participar haciendo tus propias propuestas y participando en la elección de las propuestas que se presenten.

¿Qué propuestas puedo hacer?

Puedes realizar propuestas de obras (nuevas o de mantenimiento) y propuestas de adquisición permanente o de inversión.


¿Cómo, dónde y cuándo las puedo hacer?

Las propuestas las puedes realizar desde el 1 hasta el 28 de marzo, de 8:30 a 14:00 horas presencialmente en las oficinas municipales o a través del registro electrónico del Ayuntamiento.

¿Dónde puedo encontrar más información?

Las bases y toda la documentación relativa a la convocatoria están disponibles en las oficinas y en la web del Ayuntamiento www.ansoain.es. Para cualquier aclaración puedes llamar al 948 13 34 10 o escribir a participacion@ansoain.es.

Anímate y participa!



GARAPENERAKO LANKIDETZA

35.000 € EMAN DITU ANTSOAINGO UDALAK, GARAPENERAKO 13 LANKIDETZA PROIEKTUTARAKO

Antsoaingo Udalak, 2017an, 35.000 euroko diru-laguntza onetsi zuen garapenerako lankidetzako proiektuetarako.

Herrialde behartsuenekin lankidetzako proiektuak kofinantzatzea da deialdiaren xedea, ondorengo eremuetan bereziki: osasunean, emakumeen garapenean, ingurune-saneamenduan, oinarriko heziketan, ekonomia solidarioan, giza talde ahulenetan eta degradatutako habitatan eta inguruneetan.

Hauek dira deialdira aurkeztu diren eta diru-laguntza jaso duten 13 GKEak.

ASOC. NUEVOS CAMINOS	2.723,58 €
FUNDACIÓN CONCORDIA	3.048,78 €
FUNDACIÓN ITAKA	
ESCOLAPIOS	2.479,67 €
ASOCIACIÓN AMBALA	2.439,02 €
FUNDACIÓN ENRIQUE DE OSSÓ	2.459,35 €
ASOCIACIÓN BENÉFICA LA ESPERANZA	2.642,28 €
FUNDACIÓN RODE	2.886,18 €
FUNDACIÓN VICENTE FERRER	3.313,01 €
EL SALVADOR ELKARTASUNA	2.459,35 €
ARQUITECTURA SIN FRONTERAS	2.439,02 €
AMIGOS RASD	3.048,78 €
MUGARIK GABE	2.581,30 €
INFANCIA SIN FRONTERAS	2.479,67 €

COOPERACIÓN AL DESARROLLO

EL AYUNTAMIENTO DE ANSOÁIN DESTINA 35.000 EUROS A 13 PROYECTOS DE COOPERACIÓN AL DESARROLLO

El Ayuntamiento de Ansoáin estableció para el año 2017 una partida de subvenciones de 35.000 euros para proyectos de cooperación al desarrollo.

El objeto de la convocatoria es cofinanciar proyectos de colaboración con países menos

favorecidos, especialmente, en los ámbitos de la salud, la promoción y desarrollo de las mujeres, el saneamiento ambiental, la educación básica, la economía solidaria, los grupos especialmente vulnerables y la recuperación de hábitats y zonas degradadas.

Estas son las 13 ONGs que se han presentado a la convocatoria y han sido dotadas con ayuda económica.

UDALTZAINGOA

2017 urtean, Udaltzaingoak hainbat motatako 4.837 jarduketa bete zituen. 63 trafikoko istripuz arduratu ziren udaltzainak, eta, horietariko hogeita hamaikatan, atestatu edo txosten teknikoak egin ziren. Bestalde, gai ezberdinetako 302 txosten landu zituen Udaltzaingoak. Galdutako 444 objektu kudeatu ziren Hiritarren Arreta Bulegoan, eta horien arteko 92 jabeek bueltatu zitzaizkien.

Horrekin batera, urtero Ezkaba Ikastetxe Publikoan ematen den Bide Heziketaren Astea, iaz, arlo horri buruzko prestakuntza jaso zuten 225 ikasleek.

Arlo penalean, 416 salaketa jaso eta izapidetu ziren; 2016ko datuekin alderatuta, % 8,3 gehiago. Eta adin nagusiko 34 herritar atxilotu ziren, horietatik zazpi genero indarkeriarekin loturiko delituengatik.

POLICÍA MUNICIPAL

Policía Municipal registró 4.837 actuaciones de distinta índole durante el año 2017. De los 63 accidentes que atendió, 31 derivaron en atestado o informe técnico; confeccionándose, por otro lado, 302 informes policiales por diversos motivos. En la Oficina de Atención Ciudadana se gestionaron 444 objetos perdidos, de los cuales 92 fueron devueltos a las personas propietarias.

Durante la semana de educación vial que se imparte anualmente en el CP Ezkaba, alrededor de 225 alumnos y alumnas recibieron formación en esta materia.

En el ámbito penal se tramitaron 416 denuncias penales, lo que supuso un incremento del 8,3 % con respecto al 2016. 34 personas adultas fueron detenidas por su presunta implicación en diversos hechos delictivos, 7 de ellas por delitos relacionados con la violencia de género.

IRUÑERRIKO HIRI MUGIKORTASUN IRAUNGARRI PLANA

Dakizenez, duela hilabete batzuetatik hona, Mankomunitatea plan bat egiten ari da gure eskualdean, mugikortasun iraungarriagoa sustatzeko, entitate guztien parte-hartze teknikoarekin. Iruñerriko Mankomunitateak koordinaturik, Plana, orain, herritarren partaidetza fasean dago; eta, hain zuzen ere, joan den urtarrilaren 16an, partaidetza saio bat egin zen gure Gizarte Etxean, Plana ezagutzera emateko, eta Antsoaingo auzokideen ekarpenak jasotzeko. Parte hartzerik izan ez duzuenok baduzue aukera zuen ekarpenak egiteko, bai Iruñerriko Mankomunitatearen webgunean, bai Antsoaingo Udalaren bidez, agendalocal21@ansoain.es helbidera idatzita.

Planak atseginagoa eta habitagarriagoa egin nahi du eremu publikoa, oinezkoen mugikortasuna, garraio publikoa eta bizikleta lehenetsita. Halaber, Iruñerriko irisgarritasuna hobetzeaz gain, ingurumen kalitatea hobetuko du, zarata nahiz CO2 isurketak murriztuta.

MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Antsoaingo Udalak Martxoaren 8ko egunaren nazioarteko ospakizuna baliatuko du emakumeen eskubideen aldeko konpromisoa berresteko. Era berean, informazio-aldezkaritza honen bidez, Udalak animatu egin nahi zaituzte egun horren inguruko ekitaldietan parte hartzera, Udalak eta herriko zenbait taldek hainbat gauza antolatuko baitituzte. Argibideak jasotzeko eta izena emateko, idatzi mezu bat igualdad@ansoain.es helbidera edo deitu 948 38 40 48 zenbakira.



PLAN DE MOVILIDAD URBANA SOSTENIBLE DE LA COMARCA DE PAMPLONA

Como sabréis, desde hace meses se viene confeccionando con participación técnica de todas las entidades implicadas, un plan para una movilidad más sostenible dentro de nuestra área metropolitana. Coordinado por la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona, este Plan se encuentra ahora en una fase de participación ciudadana. Precisamente, el pasado 16 de enero se celebró en nuestro Centro Cívico una sesión de participación donde se dio a conocer el Plan y los vecinos y vecinas de Ansoáin pudieron hacer sus aportaciones. Las personas que no hayáis podido participar y queráis hacerlo, tenéis la posibilidad en la web de la MCP o a través del Ayuntamiento de Ansoáin en el correo agendalocal21@ansoain.es.

Este Plan es una apuesta por hacer de la vía pública un lugar más amable y habitable, priorizando la movilidad peatonal, el transporte público y la bicicleta. Mejorará también la accesibilidad de la Cuenca y aumentará la calidad ambiental mediante la reducción tanto del ruido, como de las emisiones de CO2.

8 DE MARZO DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES

El Ayuntamiento de Ansoáin va a aprovechar la conmemoración internacional del próximo 8 de marzo para reafirmar ante la vecindad ansoaintarra su compromiso con los derechos de las mujeres y aprovecha este boletín informativo para animaros a participar en las distintas actividades que se programarán en torno a ese día desde el Ayuntamiento y otros colectivos. Para recibir más información y apuntarse se puede escribir un mail al Servicio de Igualdad, igualdad@ansoain.es, o llamar al 948 38 40 48.

AL21

ORDENANTZA FISKALAK: 2018AN ERE EZ DIRA IGOKO ZERGAK, TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK

Joan den azaroan, Udalak 2018rako ordenantza fiskalak onetsi zituen, eta ez dira tasak eta prezio publikoak igoko Antsoaingo auzokideentzat. Bestalde, ordenantza horietan aldaketa aipagarri batzuk onetsi zituzten. Hona hemen:

10. ORDENANTZA. Ordenantza honek herriko jabari publikoko lurzorua, hegalkinare eta zorupearen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egiteko tasak arautzen ditu, eta ostalaritzari lotutako terrazen ordenantza aldatzeari dago lotua. Aipatu ordenantza zuzentzea proposatu da. Izan ere, bere garaian, ordenantza onestearekin batera, tasa igoera bat onetsi zen egitura autosostengatzaileen bidez itxitako terrazetarako, eta hori ez zen terrazen ordenantzak hasieran zuen helburua. Ikuspuntu teknikitik arautu behar zen gaia, kokapenerako aukerak ugaritze aldera; beraz, ez zuen ikuspegi ekonomizistarik.

Okerra ikusita, aurreko parametro ekonomikoetara itzultzeko erabakia hartu da. Horrela, 2016an ordaindu zuten diru berbera ordainduko dute egitura horien bidez itxitako terrazak dauzkaten ostalaritza establezimenduek. Terraza irekia dutenek, berriz, iaz baino % 10 gutxiago ordainduko dute, egitura itxi iraunkorrak dituztenak eta ez dituztenak bereziz horrela. Era berean, 2018an urteko tasaren ordainketak hobaria izanen du, aurten horrelako terraza itxiak dauzkaten ostalariek akats horren ondorioz izan duten igoera konpentsatzeko.

13. ORDENANTZA. Ordenantzari egindako aldaketa baten bidez, kirol abonua kobrantza hainbanatuko da. Kirol abonu hori Udalaren kirol instalazioen bitartez eskaintzen da. Instalazioak, orain, Idakirolak enpresa publikoak kudeatzen ditu.

18. ORDENANTZA. Ordenantza honek udalaren lokalak erabiltzeko prezio publikoak arautzen ditu, eta, egindako aldaketarekin, antzokiaren erabilera ere arautu nahi da. Sedena enpresaren kudeaketa amaitu arte, gutxieneko erabilerei buruzko barne protokolo bat zegoen, eta, orain, hori ordenantza publikoan sartu da, hainbat aldagaietara egokitzen saiatuta, bai erabilerari dagozkionak, bai erabileraren egiazko kostuari buruzkoak.

19. ORDENANTZA. Musika Eskolan ematen diren ikastaroekin zerikusia duen ordenantza da. Zehazki, gurasoen arteko banatze kasuak hobeki arautu nahi dira. Orain, matrikulazioari begira, haurra Antsoainen errolatua dagoela joko da, nahiz eta eroldan ez agertu, baldin eta haren aita edo ama errolatua badago.

20. ORDENANTZA. Ordenantza hau materialen lagapenari, langileen zerbitzuak emateari eta horien erabilerarako prezio publikoei buruzkoa da, eta hobariaren ikuspuntutik berrikusi da. Ordenantzak, izan ere, hainbat hobari ezarri zituen herriko entitate, elkarte eta taldeentzat. Orain, proposatu da ez dezatela deus ere ordaindu, baldin eta jarduera Udalak babestua bada; hau da, materialak lagatzea eta/edo zerbitzuak ematea eskatu bada Udalak babesturiko jarduera baterako.

ORDENANZAS FISCALES: EN 2018 TAMPOCO HABRÁ SUBIDAS DE IMPUESTOS, TASAS NI PRECIOS PÚBLICOS

En noviembre se aprobaron las ordenanzas fiscales para el ejercicio 2018, que no contemplan subidas de tasas y precios públicos para las y los vecinos de Ansoáin. Por otro lado, se aprobaron también algunas modificaciones reseñables de las citadas ordenanzas, como son:

ORDENANZA Nº 10. Se refiere a las tasas por utilización privativa o aprovechamiento especial del suelo, vuelo y subsuelo del dominio público local y va unida a la modificación de la ordenanza de terrazas asociadas a la hostelería. Lo que se plantea aquí es rectificar la citada ordenanza ya que, en su día, se aprobó incorporando una subida de tasas para las terrazas cerradas a través de estructuras autoportantes que no formaba parte del objetivo inicial que esa ordenanza de terrazas perseguía, que no era otro que la regulación del tema desde una perspectiva técnica, de ampliación de posibilidades para su ubicación y no economicista. Puesto de manifiesto el error, se revierte a los parámetros económicos anteriores de tal manera que los establecimientos hosteleros con terrazas cerradas a través de esas estructuras pagarán lo mismo que en 2016 y aquellos establecimientos que disponen de terraza al aire libre sin cerrar, pagarán ahora un 10% menos que el año pasado, al objeto de diferenciar entre quienes tienen estructuras cerradas permanentes y quienes no. De la misma manera, en 2018 se bonificará el pago de la tasa anual para compensar la subida que este año, por error, han recibido los hosteleros y hosteleras que tienen este tipo de terrazas cerradas.

ORDENANZA Nº 13. Se trata de una modificación destinada a posibilitar el cobro prorrateado del denominado abono deporte que se oferta a través de las instalaciones deportivas del ayuntamiento gestionadas ahora por la empresa pública Ida-kirolak.

ORDENANZA Nº 18. Esta es la ordenanza que regula los precios públicos por utilización de locales municipales y la modificación que se plantea es introducir la regulación del uso del teatro. Hasta el final de la gestión que realizaba la empresa Sedena había un protocolo interno de usos mínimos que ahora se incorpora a la ordenanza pública intentado adecuarlo a diferentes variables tanto de uso como de coste real del citado uso.

ORDENANZA Nº 19. Hablamos de la ordenanza que tiene que ver con los cursos impartidos desde la escuela de música y en este caso se trata de regular mejor los casos de separación entre progenitores, considerando como empadronado o empadronada en Ansoáin, a efectos de matriculación, a aquellos niños o niñas que, no figurando en el padrón, su padre o madre sí lo esté.

ORDENANZA Nº 20. Esta ordenanza, que se denomina reguladora de la cesión de materiales y prestación de servicios personales y de los precios públicos para su utilización, se ha revisado desde el punto de vista de la bonificación que la misma recogía para entidades, asociaciones y colectivos del pueblo, de tal manera que se plantea a partir de ahora la exacción total de pago para los casos en los que la actividad para la que se solicita cesión de materiales y/o prestación de servicios esté patrocinada por el ayuntamiento. También para los grupos políticos con representación en el ayuntamiento.

ANTSOIANGO 2018RAKO AURREKONTUAK ONETSI DIRA

Udalbatzak 2018ko aurrekontuak onetsi ditu. Abenduko osoko bilkuran izan zen, eta guztira, 8.230.139,09 euro dira; zehazki, iazkoan baino 375.587,86 euro gehiago, hau da, % 4,7 gehiago. Aurreikuspenen arabera, funtzionamendu gastuak 7.908.112,09 euro dira, eta diru-sarrerak, berriz, 8.230.139,09 euro.

Aurtengo aurrekontuaren gasturik handiera ere bi partidatan dago: langileriaren sailari dagokio 4.366.045,70 euro, hots, aurrekontu guztiaren % 53; eta, bestalde, ondasun arruntak erostera eta zerbitzuetara bideratuko da 2.877.170,39 euroko kopurua, hau da, aurrekontuaren % 35.

Langileria gastuak % 17 igo dira. Izan ere, Sedena enpresak emaniko zerbitzuak udalekotasun izanari zor zaio funtsean gastuen igoera, Udalak enpresa hartako 21 langileak hartu baititu bere gain. Aldi berean, sarbideak kontrolatzeko bi lanpostu berri sartu dira aurrekontuetan; langilerian izaniko doikuntzak zenbatu dira mailari eta antzinasunari dagokienez; ordezkapenen aurreikuspena egin da mantentze-lan orokorretan; haur eskola; administrazio orokorra eta kirol instalazioak; kontuan hartu da polizia langileen erretiroarendako ekarpenei dagokien araudi berria indarrean sartzeko aukera; eta kalkuluen arabera, soldatek oro har % 1,5 igoera izanen dutela.

Finantza-karga 114.221 euro izatea aurreikusia dago, hau da, aurrekontuaren % 1,35. Iazko hasierako aurrekontuaren aldean, ez da inolako aldaketarik izan.

Epe luzerako zor bizia 871.059,70 eurokoa zen, 2017/1/1 datan; hori La Caixa entitateari itzuli behar zaion maileguari dagokio.

Tributu bidezko diru-sarrerei dagokienez, esan behar da 2018 honetan ez direla igo zergak, tasak eta prezio publikoak, azaroko osoko bilkurak halaxe erabakita; beraz, guztira, 4.812.128,09 euro izanen dira, hau da, aurrekontu guztiaren % 58.

Transferentzia arruntak 3.415.510 euro dira, aurrekontuaren % 41,5. Dirutza horretatik, 2.730.000 euro toki entitateek Nafarroako zergetan duten partaidetza funtsari dagozkio (gastu arruntetarako).

Halaber, aipatu behar da proposamen horrek bete egiten duela Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 1/2012 Legeak ezarritakoa, bai aurrekontu egonkortasunari, bai gastuaren erregelari, bai finantza iraunkortasunari dagokionean.

APROBADOS LOS PRESUPUESTOS DE ANSOÁIN PARA 2018

El pleno municipal del mes de diciembre aprobó para este 2018 un presupuesto que asciende a 8.230.139,09 euros, que experimenta un aumento de 375.587,86 euros en relación al de 2.017, es decir, un 4.7% más. Los gastos de funcionamiento previstos ascienden a 7.908.112,09 euros, siendo la previsión de ingresos corrientes de 8.230.139,09 euros.

El mayor gasto se sigue situando en las partidas de personal, con 4.366.045,70 euros, que representa el 53% del presupuesto total, y el capítulo de las compras de bienes corrientes y servicios, para el que se prevé 2.877.170,39 euros, los cuales representan el 35% del presupuesto.

Los gastos de personal experimentan un incremento del 17%. Este incremento se produce fundamentalmente por la incorporación al capítulo de personal de los gastos correspondientes a los 21 puestos de trabajo asumidos en el proceso de municipalización de los servicios prestados por la empresa Sedena. Al mismo tiempo, se presupuestan dos nuevos puestos de trabajo de control de accesos, se computan los ajustes producidos en el personal en cuanto al grado y antigüedad, la previsión de sustituciones en mantenimientos generales, escuela infantil, administración general e instalaciones deportivas, la posible entrada en vigor de una nueva normativa referente a las aportaciones a la jubilación del personal de policía y la estimación de un 1,5% de incremento salarial general.

La carga financiera tiene una previsión de 114,221 euros, suponiendo el 1,35% del Presupuesto. En relación con el Presupuesto inicial del año anterior, no experimenta, en global, variación alguna.

La deuda viva a largo plazo a fecha 01/01/2017 ascendía a 871.059,70 euros, que corresponde al préstamo pendiente de devolver a la entidad bancaria La Caixa.

Respecto a los ingresos tributarios, que no han sufrido subidas para el ejercicio de 2.018 tras la aprobación de impuestos, tasas y precios públicos en el pleno de noviembre, suman 4.812.128,09 euros, representando el 58% del presupuesto total.

Las transferencias corrientes suman 3.415.510 euros, representado el 41,5% de Presupuestos, perteneciendo 2.730.000 de euros al fondo de participación en los impuestos de Navarra (para gastos corrientes).

Así mismo, indicar que esta propuesta cumple con lo que exige la Ley Orgánica 1/2012 de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera en los principios de estabilidad presupuestaria, regla del Gasto y sostenibilidad financiera.





HERRIAN HAZI ETA HEZI

EZKABA IKASTETXE PUBLIKOA

OTSAILAREN 1ETIK 7RA ZABALDUKO DA NAFARROAN 2015EAN JAIOTAKO HAURRAK AURREMATRIKULATZEKO EPEA

Hori dela eta, gure eskolak ate irikien eguna prestatu du urtarrilaren 30erako, bi txandatan, goizez eta arratsaldez. Etortzen diren gurasoek gure hezkuntza-eskaintza zein den ezagutu ahal izanen dute. Gure eskolaren helburuen artean daude eleaniztasuna, kooperatibismoa, bizikidetzaren, sentimenduen kudeaketa eta konpetentzien garapena, besteak beste. Bestalde, egun horretan bertaraten direnek gure eskolak dituen baliabideak eta instalazioak ezagutzeko aukera ere izanen dute.

COLEGIO PÚBLICO EZKABA

DEL 1 AL 7 DE FEBRERO SE ABRE EN NAVARRA EL PERIODO DE PREMATRICULACIÓN DE NIÑOS Y NIÑAS QUE NACIERON EN 2015

Para ello nuestra escuela ha organizado una jornada de puertas abiertas para el día 30 de enero, en dos horarios diferentes de mañana y tarde.

Las familias que acudan tendrán la posibilidad de conocer la oferta educativa que nuestro centro ofrece. Entre los objetivos de nuestro centro queremos destacar el plurilingüismo, el cooperativismo, la convivencia, el aprendizaje en la gestión de las emociones y el desarrollo de las competencias. Por otra parte, los y las asistentes de estas jornadas tendrán también la posibilidad de conocer los recursos e instalaciones de los que disponemos.

ZATOZ ANTSOAINGO IRAKURLE TALDERA!

Antsoaingo euskarazko irakurle taldearen bigarren ikasturtea da hau eta 10-15 lagun biltzen gara liburutegian, hilaren azken astearteko 19:00etan. Irakurtzea gustuko dugulako elkartzen gara, eta, gure taldean, era askotako jendea elkartzeaz gain, euskaraz ikasten ari direnak eta, liburuari esker, bizitzaz ikasten dugunak biltzen gara.

Mota askotako liburuak aukeratzen ditugu, euskal literaturakoak edota euskaratuak. Eleberriak izaten dira gehienak, 200 orrialde ingurukoak, hilabetean erraz bukatzeko modukoak; izan ere, irakurtzeak plazera izan behar du! Gainera, solastatzea irakurtzea adina gustatzen zaigunez, asko ikasten dugu elkarri entzunez. Esaerak dioten moduan, zenbat buru, hainbat aburu! eta irakurle bakoitzak bere irakurketa ematen dionez liburuari, mintzatzeko, denon iritziak aditzeko prest eta etorri berrien hitza entzuteko gogoz etortzen gara.

Beraz, zatoz zu ere eta bildu talde jator honekin! Guk bezain ongi pasako duzu. Urtarrilaren 30ean elkartuko gara berriz, eta zain izanen gaituzu. Liburutegian elkar ikusiko dugu!

PARTICIPA EN EL CLUB DE LECTURA DE ANSOÁIN

Este es el segundo curso del club de lectura en euskera de Ansoáin. Todos los últimos martes de mes nos juntamos un grupo entre 10 y 15 personas a las 19:00 horas en la biblioteca. Nos gusta leer y, además de juntarnos personas muy diversas, aprovechamos la lectura no solo para aprender euskera, también para aprender mucho sobre la vida.

Seleccionamos libros de diferentes estilos, originales en euskera o traducidos. La mayor parte son novelas, de una extensión aproximada de 200 páginas, apropiadas para leerlas durante el mes; leer tiene que ser un placer. Además, hablar nos gusta casi tanto como leer, escuchándonos aprendemos mucho. Y como cada persona realiza su propia lectura, resulta muy enriquecedor. El grupo siempre tiene muy buena disposición para escuchar todas las opiniones, especialmente las de aquellas personas que quieran sumarse a la actividad.

¡Ánimate y participa en el grupo! Lo pasaremos en grande. La próxima cita la tenemos el 30 de enero. Te esperamos en la biblioteca.



HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA

Ohiko Osoko Bilkurak hilabete bakoitzeko azken asteazkenean egiten dira, 18:00etan, Udaleko osoko bilkuren aretoan.

INFORMACIÓN A LA CIUDADANÍA

Las sesiones del Pleno Ordinario se celebran los últimos miércoles de mes, a las 18:00 horas, en el salón de plenos del Ayuntamiento.

EUSKARA ZERBITZUA

EUSKARAZKO HEZKUNTZA, ELEANIZTASUN ERAGINKORRA

Euskarazko D irakaskuntza-ereduak bereziki zaintzen du hizkuntzen trataera integratua. Eredu eleaniztuna da, modu integratuan ikasten dira euskara (irakaskuntzarako komunikazio hizkuntza), gaztelania eta atzerriko hizkuntzak. Adituen iritziz, eredu hau egokia da Nafarroako berezko hizkuntzetatik abiatzen delako, eta horrek berekin dakartza motibazioa eta gizartean erabiltzeko aukera.

Derrigorrezko hezkuntza bukatzean, bertako bi hizkuntzetan hitz egiteko aukera izatea integrazio elementu garrantzitsua da. Eta, bestalde, D eredu eleanitzak atzerriko hizkuntzak bereganatzea errazten duenez, beste kultura batzuetako ateak zabaltzen ditu.

Euskara modu trinkoan lantzen da eredu honetan, ikasleei egokitutako jarduera curricularren bidez. Gaztelaniaren irakaskuntzan, berriz, hizkuntza eta literatura lantzen dira, eta, bereziki, hizkuntzaren alde formalak eta akademikoak. Atzerriko hizkuntzei dagokionez, metodologia komunikatiboak erabiltzen, ikasleak hasieratik erabiltzen du hizkuntza era aktiboan.

SERVICIO DE EUSKERA

EDUCACIÓN EN EUSKERA, MULTILINGÜISMO EFECTIVO

La enseñanza en euskera del modelo D cuida especialmente el tratamiento integrado de las lenguas. Se trata de un modelo multilingüe en el que se aprenden de manera integrada euskera (lengua en la que se vehicula la enseñanza), castellano y una lengua extranjera. Tiene, según los expertos, la idoneidad de partir de las lenguas propias de la comunidad, con las ventajas de motivación y posibilidades de uso social que esto supone.

Poder comunicarse en las dos lenguas de Navarra al terminar la educación obligatoria es un importante elemento de integración. Y, por otro lado, al tratarse de una enseñanza multilingüe, facilita ir adquiriendo idiomas extranjeros que abrirán al alumnado puertas a otras culturas.

El euskera se trabaja de manera intensiva a través de las actividades curriculares adecuadas al alumnado. En la enseñanza del castellano, se trabajan el conocimiento de la lengua y la literatura, y, más específicamente, el lenguaje formal y académico. Las lenguas extranjeras se trabajan con metodologías comunicativas que desde el principio inician al alumnado en el uso activo de la lengua.



HONDAKIN ORGANIKOAK BILTZEA GUZTION ZEREGINA DA

Mankomunitateak jakinarazi du zenbat etxebizitzek eman duten izena Iruñerrian hondakin organikoak gaika biltzeko. Antsoainen (2017ko abenduaren 5era arte), etxebizitza guztien % 37,5ek eman dute izena, eta Iruñerrian, % 46,2k. Horrek esan nahi du kanpainak harrera ona izan duela, baina badela zer hobetu handia; beraz, arduradunen iritziz, garrantzitsua da norabide horretan lanean segitzea. Horretarako, "Gai organikoa biltzearen aldeko kanpaina" jarri da abian; zehazki, informazioa ematen ari dira etxebizitzetarako eta ekoizle bereziendako, eta jendea sentsibilizatzeko jarduerak ere antolatu dira. Antsoaingo Udalak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu gai organikoa bereiztera, horrela egungo bilketa emaitzak hobetuko baitira.

RECOGIDA DE FRACCIÓN ORGÁNICA, UNA LABOR DE TODAS Y TODOS

